Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Foru Gobernu Kontseilua

Consejo de Gobierno Foral

## ERABAKIA

Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzua
Esp. Zk.: 20-93-34

**Deialdi hau onartzea: garatzeko bidean diren herrialdeetan irabazteko xederik gabeko entitateen bidez gauzatzekoak diren urte anitzeko garapenerako lankidetzarako proiektuak finantzatzeko 2021ko deialdia.**

Arabako Foru Aldundiak Eskutik dokumentua landu du; esparru dokumentu bat da, lankidetza eta elkartasun politikarako. Agiri honen helburua da jardun esparru garbi bat ezartzea, 2030 Agenda Berrian eta Garapen Jasangarriaren Helburuetan ezarritako oraingo nazioarteko erronka eta esparruei egokitua, esparru horri erantsi behar zaizkiolarik lankidetzako foru politika partaidetu, elkar banatu eta gizarteari ireki batean beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak.

Foru lankidetza arautzen duen arau esparrua otsailaren 22ko 1/2007 Euskal Legea da, garapenerako lankidetzarena. Lege horrek ezartzen ditu euskal autonomia erkidegoko lankidetzari identitate ondo zehaztu bat ematen dioten printzipio antolatzaileak, helburuak eta lehentasunak, egiturazko pobrezia eta desberdintasunak ezabatzea oinarritzat duen eredu batekin, eta epe luzeko garapen prozesuei lagun egiteko planteamendu batetik abiatuta.

Aldundiak bere egiten ditu haren hiru osagai funtsezkoak: emakumeen eta gizonen berdintasuna, belaunaldi batetik bestera aukerei eustea, eta pertsonei bultzada ematea, halako moldez non garapen prozesuan parte hartu eta hari etekina aterako dioten.

Era berean, 4/2005 Legearen pean dago esparru hori ere (otsailaren 18koa, Emakumeen eta

## ACUERDO

Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad
Nº Expte.: 20-93-34

**Aprobar la convocatoria de 2021 para la financiación de proyectos de cooperación al desarrollo de carácter plurianual en países en vías de desarrollo a través de entidades sin ánimo de lucro.**

La Diputación Foral de Álava cuenta con el documento marco para la política pública de cooperación y solidaridad, Eskutik. Este documento tiene como objetivo establecer un marco claro de actuación, adaptado a los retos y marcos internacionales actuales establecidos en la Nueva Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible e incorporando las mejoras y adecuaciones necesarias en una política foral de cooperación participada, compartida y abierta a la sociedad.

El marco normativo que rige la cooperación foral es la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de cooperación para el Desarrollo. Esta Ley establece los principios ordenadores, objetivos y prioridades que confieren a la cooperación vasca una identidad bien definida, con un modelo centrado en la erradicación de la pobreza estructural y las desigualdades, desde un planteamiento de acompañamiento a procesos de desarrollo a largo plazo.

La Diputación comparte sus tres componentes esenciales que son la igualdad de mujeres y hombres, la sostenibilidad de las oportunidades de una generación a otra, y la potenciación de las personas de modo que participen en el proceso de desarrollo y se beneficien con él.

Así mismo, este marco se rige por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y

Gizonen Berdintasunerakoa). Deialdi horretan jasotzen diren ekintzen oinarri izango dira, besteak beste, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta, zeharka, emakumeen eta gizonen aukera eta tratu berdintasunaren printzipioaren integrazioa, lege honek ezarritako gidalerroei jarraituz, eta, Arabako Foru Aldundiari dagokionez, Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren IV. Foru Planari jarraituz, zeina Diputatu Kontseiluaren abenduaren 20ko 858/2016 Erabakiaren bidez onartu baitzen.

Era honetan, foru lankidetza nazioartean arautzen duen programa esparrua bi hauek eratzen dute: Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren 2030 Agenda berriak eta Garapen Jasangarriaren Helburuek. Bi horiek perplanetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plan gisa, eta plan horrek datozen urteetan abiarazi beharreko erabakiak eta ekintzak gidatuko ditu.

COVID-19ak eragindako pandemiak markatutako testuinguruan bizi gara. Pandemia hori osasun larrialdia baino gehiago da. Krisi ekonomikoa, humanitarioa, segurtasunekoa eta giza eskubideena ere bada. Munduak dimentsio handiko krisi globalari egin behar dio aurre. Krisi horrek mundu osoan ondorio sozial, ekonomiko eta politiko larriak izango ditu, eta gogorrago kolpatuko ditu zaurgarritasun, pobrezia edo gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonak. Hala, pandemiak ondorio larriagoak izango ditu emakumeengan eta haurrengan, desgaitasuna/dibertsitate funtzionala duten pertsonengan, muturreko pobrezian dauden pertsonengan, lekualdatutako eta errefuxiatutako pertsonengan, LGTBI kolektiboan, jatorrizko herrietan eta talde etniko eta indigenetako kideengan, bereziki zaurgarriak diren taldeak direnez gero. "Inor atzean ez uzteko" printzipioa, bereziki egoera ahulenetan dauden pertsonak, izan behar da krisi honi eman beharreko erantzunaren inspirazioetako bat.

Krisiaren ondorengo susperraldiak ekologikoa eta inklusiboa izan beharko du, behetik gorakoa, eta oinarri sendoak izan tokian tokian eta lurralde bakoitzean. Horregatik, lankidetza politikak diseinatzerakoan, eta, zehazki, laguntza deialdi

Hombres. Las premisas que han de sustentar las acciones contempladas en esta convocatoria son, entre otras, la igualdad y no discriminación, y de forma transversal, la integración del principio de igualdad de oportunidades y de trato de mujeres y hombres atendiendo a las directrices emanadas de esta Ley y en lo que se refiere a la Diputación Foral de Álava, al IV Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Álava aprobado mediante Acuerdo 858/2016, del Consejo de Diputados, de 20 de diciembre.

Así mismo, el marco programático que rige la cooperación foral a nivel internacional lo constituyen los Objetivos de Desarrollo Sostenible y la nueva Agenda 2030 de las Naciones Unidas como plan de acción en favor de las personas, el planeta y la prosperidad, que guiará las decisiones y acciones a implementar en los próximos años.

Nos encontramos en un contexto marcado por la pandemia generada por el COVID-19. Esta pandemia va más allá de una emergencia sanitaria. Es también una crisis económica, humanitaria, de seguridad y de derechos humanos. El mundo se enfrenta a una crisis global de enormes dimensiones con graves repercusiones sociales, económicas y políticas en todo el mundo, y que golpeará más duramente a las personas en situación de mayor vulnerabilidad, pobreza o exclusión social. Así, la pandemia tendrá efectos más virulentos en las mujeres y las niñas, las personas con discapacidad/diversidad funcional, las personas en situación de extrema pobreza, personas desplazadas y refugiadas, colectivo LGTBI, pueblos originarios e integrantes de grupos étnicos e indígenas, como grupos especialmente vulnerables. El principio de “No dejar a nadie atrás”, en particular a las personas en situaciones más vulnerables, debe ser uno de los que inspire la respuesta a esta crisis.

La recuperación tras la crisis deberá ser una recuperación ecológica e inclusiva, una recuperación de abajo hacia arriba, de fuerte base local y territorial. Por ello, a la hora de diseñar las políticas de cooperación, y concretamente

hau diseinatzerakoan, Arabako Foru Aldundiak bat egin du COVID 19aren aurrean erantzun integrala emateko Nazio Batuen estrategiarekin eta autonomia erkidegoen, toki erakundeen eta lankidetza eta elkartasun funtsen baterako lankidetza erantzunarekin.

esta convocatoria de ayudas, la Diputación Foral de Álava, se suma a la estrategia de respuesta integral de las Naciones Unidas frente al COVID 19 y a la respuesta conjunta de la cooperación de las Comunidades Autónomas, Entidades Locales y Fondos de Cooperación y Solidaridad.

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda berria onartzeko Nazio Batuen goi bileraren azken dokumentuan aitortzen da pobrezia ezabatzea dela munduak aurrean duen desafiorik handiena, eta beharrezkoa izango dela agenda hori betetzea herrialde guztien, alderdi interesatu guztien eta pertsona guztien elkarlan itun baten bidez, itun horretan bilduz, berebat, gobernuak, gizarte zibila, sektore pribatua, Nazio Batuen sistema eta beste aginte-gune batzuk, eta eskura diren baliabide guztiak mobilizatuz.

En el documento final de la Cumbre de las Naciones Unidas para la aprobación de la nueva Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible se reconoce que la erradicación de la pobreza es el mayor desafío al que se enfrenta el mundo, y que será necesario un plan implementado mediante una alianza de colaboración de todos los países, todas las partes interesadas, y todas las personas, aglutinando a los gobiernos, la sociedad civil, el sector privado, el sistema de las Naciones Unidas y otras instancias, y movilizando todos los recursos disponibles.

Arabako Foru Aldundiak aitortzen du bera ere badela 2030 agenda betearazten zerikusia izan behar duten subjektuetako bat, eta zeregin handia duela agenda horretan ezarritako helburu eta xedeetako askotan, dakartzaten desafio berriei aurre eginez.

La Diputación Foral de Álava se reconoce como uno de los sujetos involucrados en la implementación de la Agenda 2030, con un amplio recorrido en muchos de los objetivos y metas que se contemplan en la misma haciendo frente a los nuevo retos que plantean.

Horiek horrela, elkartasun eta lankidetza politikak bereziki jarraitu beharko dio Agenda horri, pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plana denez gero.  Era eta neurri guztietako pobrezia desagerraraztea da, pobrezia gorriena bera ere bai, munduaren erronka nagusia, eta ezinbesteko betekizuna garapen jasangarrirako.

De este modo, la política de solidaridad y cooperación se guiará, muy especialmente, por dicha Agenda, como plan de acción a favor de las personas, el planeta y la prosperidad. La erradicación de la pobreza en todas sus formas y dimensiones, incluida la pobreza extrema, es el mayor desafío a que se enfrenta el mundo y constituye un requisito indispensable para el desarrollo sostenible.

Deialdi hau tresna integral bat gauzatzen da, eta aukera ematen du prozesuen araberako lan bat egiteko, egiturazkoagoa, 2021., 2022. eta 2023. urteak izango dituena gauzatzeko epea.

La presente convocatoria es una herramienta integral que posibilita un trabajo orientado a procesos, de carácter más estructural y su plazo de ejecución se establece para los años 2021, 2022 y 2023.

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren 2020ko irailaren 26ko proposamena ikusi da.

Vista la propuesta de la Dirección de Igualdad y Derechos Humanos de 26 de septiembre de 2020.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran

En su virtud, a propuesta del Diputado General, y previa deliberación del Consejo de Gobierno Foral en sesión celebrada en el día

aztertu ondoren, hau

### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Onartzea deialdi hau: beren estatutu xedetzat garapenerako lankidetza duten irabazteko xederik gabeko entitateen bidez garatzeko bidean diren herrialdeetan gauzatzekoak diren urte anitzeko garapenerako lankidetzarako proiektuak finantzatzeko 2021ko deialdia.

Bigarrena.- Deialdi hori ondoko hauek arautzen dute: Diputatu Nagusiaren Saileko lehiaketa bidezko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak (23/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21eko Foru Gobernu Kontseiluarena, ALHAOren 84. zenbakian, 2020ko uztailaren 27koan, argitaratua), baita ere Foru Dekretu honen eranskinean xedatutakoa eta, halakorik ezean, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, eta aplikatzekoak diren lege osagarri eta garapen legeak.

Hirugarrena.- Erabaki honen bidez arautatako diru-laguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontuan behar bezala hornitzen den aurrekontu-partiden kargura ordainduko dira, kalkulatzen da kredituaren banaketa hau izango dutela kapituluen eta urtekoen arabera:

Gastu arrunta: Lankidetzarako laguntzetarako elkartasun funtsak. (4. Kapitulua):

- 380.000,00. 2021. urtea
- 380.000,00. 2022. urtea
- 380.000,00. 2023. urtea

Inbertsio gastua: Lankidetzarako laguntzetarako elkartasun funtsak. (7. Kapitulua):

- 118.500,00 euro. 2021. urtea
- 118.500,00 euro. 2022. urtea
- 118.500,00 euro. 2023. urtea

de hoy,

### ACUERDO

Primero.- Aprobar la convocatoria de 2021 para la financiación de proyectos de cooperación al desarrollo de carácter plurianual en países en vías de desarrollo a través de entidades sin ánimo de lucro en cuyo objeto se recoja la cooperación al desarrollo.

Segundo.- Dicha convocatoria se regula atendiendo a las Bases Generales reguladoras de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Departamento del Diputado General (Decreto Foral 23/2020, del Consejo de Gobierno Foral de 21 de julio, publicado en el BOTHA número 84 de 27 de julio de 2020) así como a lo estipulado en el anexo al presente Decreto Foral, y por la Norma Foral 11/2016, de l9 de octubre, de Subvenciones del Territorio Histórico de Álava y por la legislación complementaria y de desarrollo aplicable.

Tercero.- Las subvenciones reguladas mediante este Acuerdo se abonarán con cargo a las partidas presupuestarias que oportunamente se doten en el presupuesto de la Diputación Foral de Álava para 2021, que se estima que contarán con la siguiente distribución del crédito por capítulos y anualidades:

Gasto corriente: Fondos Solidaridad Ayudas Cooperación. (Capítulo 4):

- 380.000,00. Año 2021
- 380.000,00. Año 2022
- 380.000,00. Año 2023

Gasto de inversión: Fondos Solidaridad Ayudas Cooperación. (Capítulo 7):

- 118.500,00 euros. Año 2021
- 118.500,00 euros. Año 2022
- 118.500,00 euros. Año 2023

Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebazten den unean.

La concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de la subvención.

Hasiera batean kontsignatutako zenbatekoak aldatu egin ahal izango dira, handitu edo txikitu, gastu arruntaren eta inbertsioaren arteko banaketari erantzuna emateko azmoz, indarrean dagoen ekonomia eta aurrekontu araubideko arauetan ezarritakoari jarraituz, deialdi honi ezarritako guztizko muga mantenduz.

Los importes inicialmente consignados podrán ser objeto de variación, vía aumento o disminución, al objeto de dar respuesta a los gastos corriente y de inversión con sujeción a las prescripciones de la normativa de régimen económico y presupuestario vigente, manteniéndose el límite global imputado a esta convocatoria.

Aukera izango da zenbateko hori gehitzeko, gehienez ere urte anitzeko proiektuetarako deialdi honetarako esleitutako urteko guztirako zenbatekoaren ehuneko 10.  Diru zenbateko hori lortuko da xedatu gabeko geldikinetik, behin ebatzi ondoren gizartea ohartarazteko kanpainetarako deialdiko eta garapenerako lankidetzako urteko ekintza puntualen deialdiko dirulaguntzen esleipenak.

Este importe podrá incrementarse como máximo en un porcentaje de un 10 por ciento del importe total anual asignado a esta convocatoria de plurianuales.  Esta cantidad se obtendrá del remanente no dispuesto una vez resuelta la adjudicación de subvenciones de las convocatorias de sensibilización y de acciones puntuales anuales de cooperación al desarrollo.

Laugarrena.- Organo eskudunak bidezko den ebazpena hartuko du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde interesdunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskaera.

Cuarto.- El órgano competente, y a la vista de la propuesta del órgano instructor, dictará la resolución que proceda, en el plazo máximo de seis meses desde la publicación de la convocatoria en el BOTHA. Transcurrido el plazo máximo sin que haya recaído resolución expresa, las entidades interesadas podrán entender desestimada la solicitud.

Bostgarrena.- Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendariari ahalmena ematea erabakia hau garatzeko, interpretatzeko eta betearazteko ezinbesteko diren egintzak eta xedapenak emateko.

Quinto.- Facultar a la Directora de Igualdad y Derechos Humanos para dictar cuantos actos y disposiciones sean necesarios para el desarrollo, interpretación y ejecución del presente Acuerdo.

Seigarrena.- Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena hartu duen organo berean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak,  123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Edo, bestela, bi

Sexto.- Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación, de conformidad con el art. 123 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o bien interponer en

hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Zazpigarrena.- Erabakia hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz,

el plazo de dos meses directamente recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Vitoria-Gasteiz, de acuerdo con lo previsto en el artículo 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso -Administrativa.

Séptimo.- Publicar el presente Acuerdo en el BOTHA que entrará en vigor al día siguiente de su publicación.

Vitoria-Gasteiz,

**Ramiro González Vicente**
Diputatu Nagusia
Diputado General

**Nerea Melgosa Vega**
Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria
Directora de Igualdad y Derechos Humanos